

2021ko urtarrilaren Xan

Bazkide agurgarriak:

Gezurra dirudien arren, ASEICAn nire lehendakaritzako bi urteak igaro dira dagoeneko. Gutun honen bitartez agur esan nahi dizuet, agur bat baino, gero arte bat izango denaren ustetan.

Hasiera batean ideiak argi bagenituen ere, ibilbide honen hastapenak erantzukizun eta ziurgabetasun ugari sortu zizkigun: gai izango gara gure proiektua modu eraginkorrean aurrera eramateko? Nola bilakatu nazio-mailan ASEICA zientzia eta onkologiaren erakunde dinamizatzaile? Gai gara horretarako? Gainera, **Carlos Campe**k gure aurretik erakutsitako lehendakaritza arrakastatsuen ostean erantzukizun handia geneukan.

Hasiera orotan izaten diren zalantza guzti hauek alde batera utzita, jarraitu beharreko filosofia zein zen oso argi geneukan. Zientzialari zein profesional gazteen alde egin nahi genuen apustu, baita zoritxarrez gure arloan existitzen den genero arazoari aurre egin ere. Hau gutxi balitz, onkologiaren arloarekin lotutako beste zientziekin erlazioak sendotu eta, nola ez, ASEICA-ren aktibitate zientifikoa eta gizarte garapena indartzea gure kide, paziente eta orohar, gizartean.

Beste gauza bat ere argi geneukan: kristalezko burbuila batean biziz, ohiko kongresuak bakarrik kontutan hartzen dituen zientzia munduaren ikuspuntu klasikoarekin ez geunden ados. Guk aldiz, bazkideentzat ematen diren jarduera zientifikoaren garrantzia ahaztu gabe, eguneroko bazkide guztien partaidetza proaktiboa sustatzen duen ASEICA batengatik apustu egin nahi genuen.

Bestalde, argi geneukan ikerkuntza onkologikoak pairatzen dituen arazoei aurre egiteko ez zirela nahikoa kafea hartu bitartean amankomunean jartzen genituen kexak. Ikerkuntzak duen garrantzia defendatzeko gure habia utzi behar genuen eta komunikabideak, sare sozialak, paziente taldeak, politika taldeak zein administrazioa erabili gizartera heltzeko. Halabeharrez, jarduera guzti hauek, espainiar zientzia-sistemak dituen gabezia kronikoak arindu zitzaketen proposamen errealistekin batera konbinatu behar ziren. Gainera, borroka hau beste paziente zein enpresa berritzaileetako erakunde zientifikoekin batera aurrera eramanez nahi genuen, aipatutako eztabaida arloetan ahots ozenagoa izateko.

Horretaz gain, ikertzaile batzuk duten iritzia alde batera utziz, gizartearen gehiengoak uler dezakeen hizkuntza erabiltzearen garrantziaz ohartu ginen, zientzia gizartera hurbilduz.

Ez zaituztet aspertuko aurretik aipatutako ideiak oinarritzat hartuta urte hauetan garatu ditugun jarduera guztiekin. Zuen eskutan utziko dut esfortzu honek ekarritako aldaketa

positiboen azkenengo balorazioa. Hala ere, jarduera horiek aurrera eramateko, zuzendaritza batzorde honek gogor lan egin duela argi uztea gustatuko litzaidake.

Horregatik, 2 urte hauetan zehar lagundu didaten zuzendaritza batzordeko kide guztiei eskerrak eman nahi nizkieke bihotzez. **Luis Paz-Ares** presidente hautetsiari, presidentziatik egindako jarduera orotan kolaboratzeagatik. **Marisol Soengas**-i, bere lanagatik ASEICA-mujer, ASEICA4You eta ASEICA-Responde ekimenak zuzentzen, gaur egun erreferente gisan hartzen baitira ekimen hauek izandako arrakastagatik. **Maria Caffarel** eta **Verónica Torranori**, ASEICA4You eta ASEICA-Joven ekimenetan egindako lan gogorrarengatik eta gauzak aurrera eramateko gogoagatik. **Ana Cuendari**, ASEICA-comunicación ekimenean egindako lan ordainezinarenagatik. **Gema Morenori** ASEICA-mujer zein ASEICA4You ekimenetan parte hartzeagatik eta presidenteak izandako arazoei konponbideak bilatzeagatik. **Arkaitz Carracedo**, **Angélica Figueroa**, **Roger Gomis**, **Rafael López** eta **Héctor Peinadori**, ASEICA-Mujer, ASEICA-Sociedad, ASEICA-Comunicación eta ASEICA-Joven ekimenetan emandako laguntzagatik. Eta, nola ez, **Carlos Camps**-i alde zuzeneko presidente moduan, gurekin egon delako aholku edo laguntza behar izan dugunean.

Ezagunak diren izen horien ondoan, era anonimo eta desinteresatu batean laguntza eskaini duten pertsona guztiak aipatzea garrantzitsua dela uste dut. Talde guzti honen barruan ASEICA-Embassadors zein ASEICA-Mujer osatu duten zientzialariak, ikerkuntza-proiektuen ebaluaketan parte hartu duten pertsonak eta 2019an ASEICA dinamiko bat aldarrikatzeko ametsa posible egin duten predok zein postdok lantalde auto antolatutako guztiak aipatu nahiko nituzke. Guzti-guztiei eskerrik asko zuen berotasun eta konpromezuegatik. Hurrengo urteetan ASEICA geroz eta erakunde dinamikoago bat bilakatzeko borrokan jarraitzera animatzen zaituztet.

Gutun hau zuzendaritza batzordearen kide berri diren **Toni Celià-Terrassa**, **Eduardo López-Collado**, **Gema Moreno**, **Aleix Prat** eta **Susana Puig**-i ongi etorri bero bat emateko baliatu nahiko nuke. Baita **Luis Paz-Ares** eta **Marisol Soengas** presidente berriei ere, noski. Behar duzuen edozertarako hemen naukazu. Gogora ezazue, zuzendaritzako kide guztiei esaten diegun moduan, "hona lanera gatoz".

ASEICA-ko presidente orok badu bere azentu eta baita bere *modus operandi* idiosinkratikoak ere. Ni ez nintzen Carlos, eta Luis ez da ni izango. Hala ere, honek ez du aldatzen bai ikuspuntu zientifiko eta baita ikuspuntu sozial batetik, guztiok ASEICA erakunde nabarmenago eta handiago bat bilakatzeko dugun helburua. Irekia eta hobegarria den proiektua da hau, horregatik, presidente zein zuzendaritza batzordearen kideez gain, ASEICA osatzen duten 1.000 bazkideak modu aktiboan parte hartzea espero dut. Zalantzarik gabe, guztiok batera, helburu hau aurrera eramango dugu.

Bi urte igaro ondoren, ez dugu ez zalantza ezta ziurgabetasunik ere, halabaina, gauza gehiago egiteko denbora falta izan zaigunaren sentsazioa besterik ez zaigu geratu. Hala ere, argi daukat airean geratu diren zereginak etorkizunean aurrera eramango direla baldin eta denon artean ASEICA dinamiko, bizi eta aktibo bat sustatzen badugu. Guzti honengatik, eskutitz honekin agur bat baino, gero arte bat luzatu nahiko nizueke.

Besarkada bero bat,

**Xosé R.Bustelo**

ASEICA-ko presidentea.